


***Lan saioa: GORPUTZAK, DENAK DESBERDINAK***



**AURKIBIDEA:**

1. Justifikazioa .....	2
2. Laburpen infograma .....	3
3. Sekuentzia didaktikoa .....	4
4. Irakasleen feedback.....	6

<b>GORPUTZAK, DENAK DESBERDINAK: Justifikazioa</b>		
<b>SAIOAK:</b> 1-2	<b>ARLOA:</b> ----	<b>MAILA:</b> LH
<b>GAITASUNAK:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkabizitzarako zehar konpetentzia</li> <li>• Norbera izaten jakiteko konpetentzia</li> <li>• Hitzez eta hitzik gabeko komunikazioarako eta komunikazio digitalerako zehar konpetentzia</li> </ul>		
<b>JUSTIFIKAZIOA:</b> Ume bakoitzak bere gorputzarekin eraikitzen duen erlazioa bere autoestimuko elementu nagusia izango da, hortaz, norbera den modukoa izatearen balioa azpimarratzea eta lantzea beharrezkoa da. Era berean, elkarbizitza egokia sustatzeko, inguruko gorputz desberdinasunak onartu eta era positiboan baloratzea behar da. Horretarako aludun mutil eta zakildun nesken errealitatean sakonduko dugu, gure ikas komunitatean gutxienez, onartuta dauden, halako kasu bi badirelako, eta elkarbizitzaren oinarri diren babes eta sositengua erakusteko modu sortzaileak bilatuko ditugu.		
<b>EGINKIZUNA:</b> Norbere gorputzaren bizipen positiboa sustatuko duen elkarrizketa izan eta materiala irakurri eta bizitzea eta gure komunitatean badiren zakildun neska eta aludun mutilen errealitatea babestu eta sostengatuko duen ekimen (artelan) bat sortzea.		
<b>HELBURUAK</b>	<b>LORPEN -ADIERAZLEAK</b>	
<b>1.</b> Gorputzak guztiak desberdinak direla jabetu, bakoitza bere berezitasunak onartuz, norbere burua eta bestearenganako errespetua sustatzeko.	1.1 Gorputzen arteko desberdinasunez jabetzeko gai izan da.	
	1.2 Bere berezitasunak aipatu eta onartu ahal izan ditu.	
	1.3 Bere gorputza eta besteenari buruz jarduterakoan errespetuz egin du.	
<b>2.</b> Gorputz desberdinen artean aludun mutilak eta zakildun neskak badirela ezagutu eta onartu, errealitate hau erakusten duten hainbat material erabili eta errespetuzko hausnarketak eginez (bideo, ipuin, ...), gure eskola komunitatean dauden kasuak baloreari ipini eta guztion artean hauek babestu eta sostengatzeko ekimen bat sortuz.	2.1 Zakildun neska eta aludun mutilen errealitatea ezagutu eta onartu du	
	2.2 Errespetuzko hausnarketak egin ditu	
	2.3 Zakildun neska eta aludun mutilen errealitatea baloreari ipini, babestu eta sostengatzeko ekimen bat sortu du.	



# GORPUTZAK, DENAK DESBERDINAK

## SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

- 1. Irudiaren aurkezpena:** Arbel digitalean irudia proiektatu eta galdera hauek talde handian hauen inguruan hausnartu

- Nor da pertsona hau?
- Ezer aipagarria ikusten diozu?
- Arazorik izan dezakeela iruditzen zaizu?
- Ezagutzen duzu egoera honetan dagoen norbait?




- 2. Solasaldia:** Gorputz bakoitza ezberdina. (Talde txikietan galderak landu eta gero handian komunean jarri):

- Zenbat gorputz eredu daudela uste duzue?
- Ezagutzen dituzue pertsona bi gorputz berdina dutenik?
- Zein da zure gorputzeko atalik desberdinena?
- Gorputz atal desberdina hori berazitat daukazu? Gustatzen zaizu?
- Zein da zure taldekideen gorputzetik gehien gustatzen zaizuna?
- Zure gorputzeko atal edo ezugarri bati barre egingo balizute ikaskideek, nola sentituko zinateke?
- Eta eskolako ikasle nagusiagoek egingo balizute?
- Zer egingo zenuke?

- 3. Liburuen aurkezpena:** (idea denek liburuak irakurri eta ondoren denen artean komentatzea da)


1go eta 2. zikloan

Liburua hau irakurri eta komentatu



3. zikloan

Liburua hau irakurri eta komentatu



<b>4. Ondorioak:</b> Hausnarketa eta ondorioak ateratzea	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zer da gehien gustatu zaizuna liburutik?</li> <li>- Zure gorputza isladatuta ikusi duzu?</li> </ul>	
<b>5. Solasaldia:</b> Badira zakildun neskak eta aludun mutilak. (talde txikian eta gero handian)	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Badakizu gorputz guztiak desberdinak direla, egon daiteke zakilik ez duen mutilik eta titirik ez duen neskarik?</li> <li>- Eta titidun gizonik?</li> <li>- Badakizu badaudela zakildun neskak eta aludun mutilak?</li> <li>- Zenbat halako kasu ezagutzen dituzu?</li> <li>- Badakizu gure ikas komunitatean halako kasurik dagoen?</li> <li>- Berezitasun hau duten neska eta mutilei barre egitea ondo deritzozu? (gogoratu lehenengo solasaldian zuri barre egitean sentitu duzuna komentatu duguna)</li> </ul>	
<b>6. Bideoen ikuskapena:</b> Ondorengo bideoak ikusi	
<i>1go zikloan</i>	<i>2 eta 3. zikloan</i>
<p>Laia pirata (Naizeneko errekurtsioetatik aterata)</p> <p><a href="https://www.youtube.com/watch?v=FH7syuHheds&amp;t=2s">https://www.youtube.com/watch?v=FH7syuHheds&amp;t=2s</a></p>	<p>Neskak eta mutilak, bakoitza bere erara (Naizen materiala)</p> <p><a href="https://www.youtube.com/watch?v=uTpwJ8b9wm0">https://www.youtube.com/watch?v=uTpwJ8b9wm0</a></p>
<b>7. Ondorioak:</b> Hausnarketa eta ondorioak ateratzea	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zer da gehien gustatu zaizuna bideotik?</li> <li>- Ezagutzen al duzue halako kasurik?</li> </ul>	
<b>8. Ekoizpena:</b> talde txikian gero talde handian	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gure ikas komunitatean egoera honetan badaude gutxienez dakizkigun bi ikasle. Beraiei laguntza edo sostengua eskeintzeko ideiarik badaukazu?</li> <li>- Ikusi bideoklip hau ea zer ideia ateratzen duzuen:</li> </ul> <p style="text-align: center;"><a href="https://www.youtube.com/watch?v=ISDhXRTXYvE">https://www.youtube.com/watch?v=ISDhXRTXYvE</a></p>	

<b>IRAKASLEEN FEEDBACKA: Saioaren ondoren betetzeko</b>		
<b>MAILA:</b>		
<b>ERABILITAKO LAN SAIO KOPURUA:</b>		
<b>ITEMA</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>
Planteatutako helburuen egokiak izan dira zure ikasleentzako?		
Planteatutako helburuak lortu dira?		
Erabilitako materiala egokia izan da zure ikasleentzako?		
Planteatutako lorpen adierazleak egokiak izan dira zure ikasleentzako?		
Solasaldian ikasleek parte aktibo hartu dute?		
Ikasleei erakargarria egin zaie saioaren diseinua?		
Eroso sentitu zara gaia proposatutako eran lantzen?		
<b>Komentarioak edo ekarpenak</b>		